

LINOREN BARATZEKO SEKRETUA

Udaberria da Linoren Baratzerira iritsi
eta barazkiak daude urduri,
denek nahi dutelako
barazkirik handienaren lehiaketa irabazi.

Kalabazinek uste dute eurak direla onenak
urte askoan izan baitira garaileak:
“Gurekin errezeta asko prestatzen dituzte,
hirugiharrez bete, arrautzeztatu edo plantxan egiten gaituzte.
Mundu guztiak esaten digu: baratzeko poza zarete!”

Kalabazinak esandakoak tristura eragiten zion Cherriri,
tomate txikitxoak zen arren balio handikoa zenari:
“Denok gara garrantzitsuak, eta egin behar dugu elkartu
partekatze moduko errezetak ditzaten prestatu.”

Tomate handi batek bere landaretik egin zuen oihu:
“Tomate kaxkar batek esandako tontakeria da, ziur!
Entsalada perfektua nirekin bakarrik presta dezakete,
olio eta gatz apur batekin mahaira eramaten naute”.

Cherrik, beherantz begira, haxe esan zuen goxo-goxo:
“Bada, nik nahiago dut ondoan izan adiskide letxugatxo,
talde bikaina osatuta, gurekin errezeta ederrak egiten dituzte oso”.

Ilarrak Cherriren alde agertu ziren argi eta garbi.
Haiek ere txikiak dira, baina dituzte bitamina ugari!:
“Ez da justua handiek beharrezkoak direla pentsatzea,
hemen denok gara garrantzitsuak, gure tamaina gorabehera”.

Piperrak ere irabazle jotzen zuen bere burua,
berek eta asto berdearenak esanda, guztiei erakutsi zien bere
amorrua.

Baina lurrak zuen baratzeko altxorrik baliotsuena,
eta unea iristean Cherrik esango zien honakoa:
“Baratzeak sekretu bat du eta laster duzue jakingo
eta hori argitzean, elkarrekin liskarrean ibiltzeari diozue utziko”.

Hurrengo egunean, bere handitasunaz harro agertuz
urte horretako irabazleek bere saria zuten hartu:
tomateak jaso zuen hirugarren saria,
piperrak bigarrena, eta izan zen garaile kalabazina.

Irabazleak zeuden harro-harro,
gora txikitxoan!, egin zuten barrengorriek oihu.

Eta, une horretan, Cherrick bere landaretik egin zuen jauzi eta aho zabal utzi zituen sekretua zien jakinarazi:

“Haziak aurkezten dizkizuet”, esan zuen bere jaka irekiz, “oso txikiak dira baina horiei esker gara bizi. Denok behar ditugu iraun ahal izateko, erein izan ez balira, gutako inor ez litzateke hemen egongo”.

Kalabazinak eta tomateak izututa begiratu zioten elkarri eta piper berdea lotsaren lotsaz jarri zen gorri-gorri. Besteak baino gehiago zirela uste izan zuten, eta zeuden oker, ez ziren besteak baino garrantzitsuagoak handiagoak izan arren.

Egun horretatik aurrera baratzean denek errespetatu zuten elkar: handiak edo txikiak izan, denok gara baliokoak eta.

Hurrengo uztan haziak erein ziren eta kontu handiz zainduta fruituak jaso zituzten.

Era askotako barazkiak bildu zituzten urte horretan, kolore eta neurri ezberdinetakoak eta osasuntsu jateko guztiak ere oso beharrezkoak!